

# URTEKO TXOSTENA 2017

ZURE AMETSAK ERREALITATE

BIHURTZEN DITUGU

DSVI  
KOTA ZERO  
suplemento zerbitzua  
luzer profesional

Urtzi Zubiaurre

**EKINTZAILE**



**gaztenpresa**  
fundazioa

# LANKIDETZAK

## ERAKUNDE SORTZAILEA

---



## ERAKUNDE KOFINANTZATZAILEAK

---



COMUNIDAD EUROPEA  
Fondo Social Europeo

Con el subvenciones del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y del Fondo Social Europeo, a través del Programa Operativo de Empleo, Competitividad y Empleo 2007-2013.



## KOLABORATZAILEAK

---



## ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

---



## PARTE HARTZEN DUGUN SAREAK

---



# AURKIBIDEA

## **1. PRESIDENTEAREN GUTUNA**

## **2. GAZTENPRESA**

## **3. JARDUNBIDEAK**

- ENPRESAK SORTZEA ETA ENPRESAK FINKATZEA
- MENTORING PROGRAMA
- KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEA

## **4. KOMUNIKAZIOA**

## **5. URTEKO KONTUAK**



**“Gogorra da,  
baina merezi du  
horren truke  
lortzen duzun  
gogobetetasun  
pertsonal handiagatik”**

**LORENA LANCHAS  
MIGAS  
OKINDEGIA**

**E. SORTZEA  
BIZKAIA**



**gaztenpresa**  
fundazioa

# PRESIDENTEAREN GUTUNA

## XABIER EGIBAR

Gaztenpresan ekintzaile izan nahi duten pertsoneri laguntzen diegu eta elkarlanean aritzen gara ekintzailetzaren kultura gure ingurunean hedatu dadin. Horregatik geurea egiten dugu Europako Batzordeak Parlamentuari zuzendu zion mezua, Ekintzailetzari buruzko 2020ko Ekintza Planean. Gure gizarteak ekintzaile gehiago behar ditu, eta hori lortzeko espiritu ekintzailea berpiztu behar da.

Espiritu ekintzailea sustatzea helburu bat da, ekintza konkretuak behar dituenak, gurari soiletan geratuko ez bada. Horrela, bada, lehen urratsa ekintzailetzaren arloko heziketa garatzea da. Ideia onak kopiatzea badago, baina motibazioa edo prestakuntza ez. Pertsona bakoitzarekin doazen dohaiak dira, eta hezkuntzatik edo prestakuntzatik bultzatu behar direnak, sormena, nekazaintasuna edo erantzukizuna bezalako jarreraren eta gaitasunen garapena indartuz.

Funtsezkoa eta desiragarria da pertsona orok barruan daraman sormena azaleraraztea, baina, horrekin batera, ideiak ekintza bilakatzea ahalbidetu beharra dago. Horregatik, garapen pertsonalaren ardatzaren ondoan, garrantzi handia du ekintzaile izatea erabakitzen duena ingurune egokian mugitzeak. Horrela, beste neurri posible batzuen artean, garrantzitsua da finantzaketa lortzeko bideak erraztea, enpresa bat sortzeko arau zama arintzea, negozioak eskualdatzen laguntzea, zerga sistemak ekintzailetzari eta autoenpleguari mesede egitea, eta lehen proiektuan asmatu ez duten asmo oneko ekintzaileei bigarren aukera bat eskaintzea.

Ekintzailetzak maila guztietako erakundearen agendan agertu behar du, bai Europako erakundeetan, bai estatuarenetan, nazioartean eta tokikoetan. Asko dira ekintzailetzari mesede egin diezaioketen legegintza eta administrazio erabakiak, bideratu dira batzuk eta heltzeko daude beste batzuk. Hori guztia, proiektu berrien sorrera erraztuko duen erakunde eta arau esparru baten mesedetan, egitasmo berri horiek aldi berean etorkizunerako apeu izan daitezten.

Helburu horrekin Europa 2020 Estrategia diseinatu da, eta horren ondorengo plan eta programak, hala nola EaSI, Cosme eta Horizon. Eremu hurbilagoetan Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legea eta Euskal Ekintzailetza Sistema baten Garapenerako Lankidetzaren Esparru Hitzarmena aipa ditzaket, EAEko hiru foru lurralde bakoitzean beren garapena izan dutenak.

Izan ere, ekintzailetzak ekintzailetzari egiten dio aldarri, eta Gaztenpresa horren erakusgarri argia da. Duela 25 urte Laboral Kutxako borondatezko profesional talde batek beren inguruneko gazte langabeei laguntzeko proiektu txiki bati eman zion hasiera. Ideia hasiberri hura da gaurko Gaztenpresa Fundazioa, errealitate finkatu bat, bere misioa sobera ere betetzen duena, hots, pertsona ekintzaileari laguntza eskaintzea, baina finantzaketa edo aholkularitza faltagatik merkatura heldu gabe ideia bideragarri bat bera ere ez geratzeko moduan.

Datuek indarra ematen diote asmo adierazpen handinahi horri. 2017an zehar, iaz, 2.181 eskaera jaso ziren gaitutako kanal guztietatik. Heldutasun gehiagoko edo gutxiagoko enpresa ideia hauetatik abiatuta, 402 enpresa txiki eta 703 enplegu sortzen lagundu dugu. 23 urteko historia du Gaztenpresak, eta aldi horretan 8.754 lanpostu baino gehiago sortu dituzten 4.910 enpresa martxan jartzen lagundu du.

Gaztenpresaren lanak ezaugarri bereizle bat dauka. Euskadin ekintzaile denaren profil orokorra bere proiektuari abaguneagatik ekiten dion prestakuntza ertain-handiko pertsonarena bada ere, Gaztenpresan beharizanak eraginda ekiten dioten prestakuntza maila apalagoko pertsonak ditugu ardatz.

Horregatik Gaztenpresak laguntza osoa ematen du, bai martxan jartzeko bai sortutako enpresak finkatzeko eta irauteko, izan ere, enpresa martxan jarri ondoren, ekintzaileak zailtasun praktiko asko eta horiei aurre egitea askotan eragozten dion gizarte bat aurkitzen ditu eta. Gaztenpresak ondorengo laguntza eskaintzen duten aldizkako lantegiak garatzen ditu, eta inbertsio berriei, ixteko erabakiei, merkatu aldaketei edo laguntza berrien eskaerari buruzko kontsultei ere erantzuten die.

Gainera, gure mentoring programa erabiliz, laguntasun pertsonalizatua eskaintzen dugu urtebetez; horren bitartez

persona aditu batek gazte ekintzaile bati borondatez laguntzen dio bere trebetasunak eta gaitasunak indartzen, bai bere garapen pertsonal eta profesionala aurreratzeko bai bere negozioa finkatzen laguntzeko. 28 izan dira 2017an martxan jarri diren mentore-ekintzaile harreman berriak.

Hala eta guztiz ere, oraindik bide luzea dago egiteko. Euskal Autonomia Erkidegoko Global Entrepreneurship Monitor Txostenaren azken aleak dioenez, GEM EAE 2015, guztizko ekintzailetza tasa deritzonaren arabera, euskal biztanleriaren % 3,4 soilik dago ekintzailetzan inplikaturik. Datua argi eta garbi hobetu daiteke Europako beste errealitate batzuekin alderatuz gero, esate baterako Alemaniarekin (% 4,7) edo Frantziarekin (% 5,3).

Seguru aski norbere buruaren atseginean geratzea aurrerapenaren arerio handienetako bat da. Horregatik Gaztenpresan gure eskakizun maila handitu behar dugu eta erronka berriak geureganatu behar ditugu. 2018rako gure agendan, enpresa berriak eta lanpostuak sortzea den helburu kuantitatiboaren ondoan, letra larrietan dugu ekintzailetzaren eta autoenpleguaren bidea gure gizartearen eredu arrakastatsua dela aitortu dadin laguntzea, garatzen den lekuan enplegu duinak eta oparotasuna sortzen dituelako.

---

# GAZTENPRESA

---

1. Nortzuk gara
2. Taldea
3. Impaktua
4. Pertsona ekintzailearen profila





**“Grina handia dago  
proiektu honetan,  
programak  
segurtasuna  
ematen digu”**

TXUS CABRERA  
SERGIO VALIENTE

LAUGAR  
ARTISAU-GARAGARDOA

MENTORING P.  
BIZKAIA



# NORTZUK GARA

Gaztenpresa  
Fundazioa LABORAL  
Kutxaren fundazio  
bat da, bere gizarte-  
ekintzaren eremukoa.

**Gure helburua da  
enpleguaren sorrera  
eta finkapena sustatzea,  
enpresak sortzearen  
bidez.**

## 1 NORTZUK SOSTENGATZEN DITUGU:

- Pertsona ekintzaileak, haien adina zeinahi delarik ere.
- Garapen-proiektuak dituzten mikroenpresa gazteak.
- Sen ekintzailea euren erabiltzaileen artean sustatu nahi duten erakundeak.

## 2 GURE TALENTUA: BOLUNTARIOAK

- Horretarako, boluntario-taldez osatutako egitura bat dugu: barne-talde bat, kudeaketan laguntzen diguna, eta kanpo-talde bat, Gaztenepresan ekiten duten pertsonen mentore gisa aritzen dena.

3

BOLUNTARIOAK,  
GUZTIRA

134

GAZTENPRESA  
TALDEA

72

BARNE-TALDEA

62

KANPO-  
BOLUNTARIOAK





**TALDEA**

## PATRONATUA

X. Egibar, I. Urgoiti, I. Martinez,  
J. Cortajarena, C. Osés, P. Ugalde,  
O. Muguerza, L. Peña,  
J. Sagastigordia

## KOORDINAZIO OROKORRA

X. Egibar, O. Muguerza, I. Ramos

### KOORDINAZIO TALDEA DNA + GAZTE

Borja Garate  
Ander Toña  
Eñaut Erdoiza  
Gorka Zaldunbide

### KOORDINAZIO TALDEA SAREA + PRO + GAZTE

GIPUZKOA-NAFARROA  
Iñaki Altuna  
Naiara Lopetegi  
Ibon Otaegi  
Kontxi Lazaga  
Iñaki Elortegi  
Ainhoa Azurmendi  
Maitane Loiola  
Lucio Tirapu

BIZKAIA-ARABA  
Valentín Gómez  
Aitor Berlanga  
Pilar Crespo  
Jorge Elorza  
Alberto Godino  
Iker Etxebarrieta  
Juan Carlos Díaz  
Eduardo Martínez

### ARRISKUA DUTEN OPERAZIOEN BATZORDEA LERRO BEREZIA

Iñigo Martínez  
Valentín Gómez  
Iñaki Altuna  
Borja Garate  
Inma Ramos

5  
HOBEKUNTZA-TALDEA

### MENTORING

YBS  
Borja Garate

Mentoring Manager  
Ana Artetxe

9  
HOBEKUNTZA-TALDEA

93  
Mentoreak

# IMPAKTUA


Sortutako Enpresen eta  
lanpostuen bilakaera

# 4.910

ENPRESA SORTUTA

# 8.754

LANPOSTU SORTUTA



Eskerrak ematen dizkiogu  
Jon Emaldiri. 12 urte hauetan  
Gaztenpresan egindako lanagatik.

Garai berri honetan zure  
laguntzarekin kontatzea espero  
dugu.

# AITORTZAK

- **CORRESPONSABLES FUNDAZIOA (2010)**

Laboral kutxa saritu zuen 2010ean, "Gestiona-t en Gaztenpresa" proiektuagatik

- **SAN PRUDENCIO FUNDAZIOA: (2010)**

Finalistak Enpresa-jardunbide egokientzako sarietan.

- **BIOTZA SARIAKEKINTZAILE SARIA (2010)**

- **EUSKALIT - CLUB 400 (2010)**

Finalistak berrikuntzaren alorreko Jardunbide egokientzako sarietan.

- **GIORDANO DELL' AMORE MICROFINANCE GOOD PRACTICES EUROPE AWARD (2014)**

- **EMAKUMEZKO ZUZENDARIARENTZAKO SARIA (2015)**

AMPEAK emanda (Arabako emakume enpresaburu, profesional eta zuzendarien elkarte).

- **MENTORING-HARREMAN ONENAREN SARIA (2017)**

- **EUSTART UP SARIA (2017)**

Enpresa-sorkuntzaren sustapenari gehiago lagundu dion enpresari emanda.



**Gaztenpresarentzat, garrantzitsuena pertsona ekintzaileak dira, hau da, askotariko arazoak direla medio egun batean urrats hori egitea erabaki zutenak, euren bizitza eta euren familien bizitzak hobetzeko; historia txikiak, pozez betetzen gaituztenak eta gure jarraitzeko eta hobetzeko motibazioa indartzen dutenak. Txosten honetan, historia erreal horietako batzuk islatzen dira. "ERREALITATE BIHURTZEN DIREN ILUSIOAK".**





**“Probatu eta  
esperimentatzeko  
beharra nuen”**

YAISA DOMINGUEZ

EMME  
APAINKETA ESTUDIOA

E. SORTZEA  
BIZKAIA



**gaztenpresa**  
fundazioa

# PERTSONA EKINTZAILEAREN PROFILA

Sostengatzen ditugun pertsona ekintzaileen datuak aztertzen ditugu, enpresak sortzeko programak hobetzeko.

**38** Batez  
besteko  
adina

GIZONAK  
**%54**

EMAKUMEAK  
**%46**

LAN EGOERA

**56%**

Lanpostua  
galtzear  
duten  
langileak

**44%**

Langabeak

IKASKETA MAILA

**%74**

Unibertsitatez  
besteko ikasketak

**%26**

Unibertsitate-ikasketak

JARDUERA SEKTOREA:

**%22**  
MERKATARITZA

**%73**  
ZERBITZUAK

**03%**  
INDUSTRIA

**%02**  
NEKAZARITZA  
ABELTZAINZA

**“Oso harro  
sentitzen naiz  
aurrera egiteaz”**

AMAIA ALBAINA

ST. TROPEZ BIDAIE  
**BOUTIQUE AGENTZIA**

**E. SORTZEA**  
**ARABA**



**gaztenpresa**  
fundazioa

---

# JARDUNBIDEAK

---

1. Enpresak sortzea eta Enpresen finkapena
2. Mentoring programa
3. Ekintzailatza sustatzea



**“Nire proiektua da, nire negozioa”**

ANDER SINDE

**SINDE FISIOTERAPIA  
ETA OSTEOPATIA**

**E. SORTZEA  
BIZKAIA**



# ENPRESEN SORRERA ETA FINKAPENA

ZURE PROIEKTUA ABIATZEN  
DUZUNEAN, HASIERATIK  
AMAIERARA ARTE GAUDE  
ZURE ONDOAN.



**Gaztenpresaren helburua da enplegua sortzen eta mantentzen laguntzen duten ekimenak sostengatzea eta ekintzak garatzea.**

Enpresa berriak abiatzen lagutzeko lanean dugun esperientzia oso erabilgarria izango zaizu zure negozioa martxan jartzeko egin behar dituzun urrats guztiei helderakoan.

**A**


Arreta eta aholkularitza pertsonalizatua.

**B**

Zure ondoan gaude behar duzun guztian: Negozio-plana aztertzea, tramiteak egitea, laguntzak eskatzea...

**C**

Finantziarioa, baldintza berezietan.



**“Asko gustatzen  
zait egiten  
dudana,  
eta banuen  
berritzatzeko  
gogoia”**

ALFONSO PEREGRINA

BASKET SITO  
KIROL EKITALDIAK

E. SORTZEA  
GIPUZKOA



**gaztenpresa**  
fundazioa

## 2017KO DATUAK:

# 402

ENPRESAK

ARABA	73
BIZKAIA	174
GIPUZKOA	88
NAFARROA	67
<b>GUZTIRA</b>	<b>402</b>

# 703

LANPOSTUAK

ARABA	116
BIZKAIA	286
GIPUZKOA	197
NAFARROA	104
<b>GUZTIRA</b>	<b>703</b>





**"Gure ametsa  
errealitate  
bihurtzen da"**

LUA ROTAETXE  
JOANA ROTAETXE

MAHARTI  
LANDETxea

E. SORTZEA  
BIZKAIA



**gaztenpresa**  
fundazioa

# 5 URRATSEAN EKINTZAILE IZATERA AUSAR ZAITEZ!



**“Ez dugu  
aurrera egiteko  
mugarik”**

JOSE M<sup>a</sup> SANZ  
ALVARO UBIERNA  
IÑAKI EGUIA

**AHOLKULARITZA  
ETA INGENIARITZA**  
RKL INTEGRAL

**E. SORTZEA  
BIZKAIA**



**gaztenpresa**  
fundazioa

# 1. IDEIA

Zure ideia negozio-aukera ote den ikusten laguntzen dizugu, eta baita ideia hobetzen eta enpresa-zentzua ematen ere. Anima aitez eta proba ezazu ekiteko testa:

[www.gaztenpresa.org/eu/tests/](http://www.gaztenpresa.org/eu/tests/)


# 2. NEGOZIO PLANA

**Negozio-plana funtsezkoa da ekiteko.** Enpresa bat sortzeak dituen inplikazio guztiak ulertzea ahalbidetzen dizu. **Zure ideia egituratutako plan bihurtu, errealitatea izatera iritsi dadin.** Ideia batek funtzionatu ote dezakeen ebaluatzea ahalbidetzen dizu.

Urtean ia

# 2.181

eskari atenditzen ditugu




- Bizkaia 54%
- Gipuzkoa 23%
- Araba 13%
- Nafarroa 10%

eskarien

# %48

hurrengo fasera pasatzen da



**"Gure hobbya  
gure lana da"**

DAVID BERMEJO  
JOSEBA PÉREZ  
GILLEN MURILLO

**NAUTIKARAKO  
MEKANIZAZIOAK**  
JAPS-NAUTICAL DESIGN


**E. SORTZEA  
BIZKAIA**



**gaztenpresa**  
fundazioa


## 3. TRAMITEAK

Enpresa bat sortzeko tramiteak gogaikarriak izan ohi dira, eta geuk ondo ezagutzen ditugu. Zure ideiak argitu ditzakegu, gai hauei buruz: nola izan enpresari autonomia, gizarte-segurantzaren ordainketa, laguntzak eta diru-laguntzak,...



eskarien  
**%38**  
**BIDERAGARRIA**





IKUSI BIDEOA

**“Benetan  
gustatzen  
zaidana egiten  
dut”**

UDANE IRASTORZA

**LORE-ARTEA  
KOLORE**

**E. SORTZEA  
BIZKAIA**



**gaztenpresa**  
fundazioa

# 4. FINANTZIAZIOA

**Finantziario-plan bat egiten laguntzen dizugu, zure proiektuaren beharrak baloratzeko eta kostu txikiena sortzen dizuten finantziario-iturri egokienak aukeratzeko.**

Finantziarioa baldintza berezietan lor dezakezu, eta baita ekintzailetzarako finantziario-hitzarmen espezifikoak ere: Europako Inbertsio Funtsa, Elkar Bermatzeko Sozietateak, Gizarte Ekonomiako Erakundeak,...

**310 EMANDAKO KREDITU**

**%77**

FINANTZIAZIOA  
SINATUTA ZUEN

**FINANTZIAZIOA** 2017 AN

**8.500.000 €**

**FINANTZIAZIOA** 2017RA ARTE

**138 mill €**

**56.111€**

**BATEZ BESTEKO INBERTSIOA**

Batez besteko inbertsioa enpresa berriak abiatzeko.

**27.300€**

**BATEZ BESTEKO MAILEGUA**

Enpresa-proiektua gauatzeko beharrezkoa den batez besteko mailegua.





## Neu naiz nire nagusia, neuk erabakitzen dut"

JOSE ANGEL MAGRO

ESCAPE ROOM  
ATRAMPADOS

E. SORTZEA  
BIZKAIA



**gaztenpresa**  
fundazioa

# 5. ENPRESEN FINKAPENA

Zure enpresa abiatuta dagoenean, zure ondoan jarraituko dugu

- **Gaztenpresa Mentoreen Taldea:** Enpresen kudeaketan eskarmentua duten pertsonak, zure lehenengo urratsetan zurekin egoteko.
- **PRO Mintegiak eta Gaztenpresa Tailerrak:** Zure negozioaren kudeaketan eguneratuta egoteko prestakuntza.
- **Consulting PRO:** Eguneroko kudeaketaren alorrean sortzen zaizkizun zalantzetarako (gai fiskal eta juridikoak, laguntzak...).
- **Networking:** Zure moduko beste pertsona ekintzaile batzuekiko kontaktua, esperientziak eta jardunbide egokiak konpartitzeko.
- **LABORAL KUTXAren PRO Zerbitzua:** Kudeatzaile adituak, zure negozioarentzako Pro finantza-zerbitzu onenez orientatuko zaituztenak.

**95**  
TAILER  
EGIN DIRA

**1.020**  
PERTSONA  
BERTARATU

**402**  
KONTSULTA  
ATENDITU DIRA  
CONSULTING PRO  
ZERBITZUAN

**83**  
ENPRESA  
FINKAPEN FASEAN



## “Gustatzen zait negozioak kudeatzea”

IGOR ARBIOL

**CONSTRUCTORA  
RIA REFORMAS**

**E. FINKAPENA  
PAMPLONA**



**gaztenpresa**  
fundazioa

# MENTORING PROGRAMA

**Akonpainamendua eskaintzen du (boluntariotzaren esparruan),  
pertsona gazteen negozioak finkatzeko.**

Ekintzailetzan eta/edo enpresa-kudeaketan esperientzia duen pertsona batek beste bat laguntzen du, kontrastea eskaintzen dio eta beraren enpresa-erabakiak indartzen ditu, **beraren kudeaketa-gaitasunak hobetzeko.**

## Pertsona ekintzailearentzako onurak

- Negozioari buruzko erabakiak hartzeko prozesua hobetzea.
- Beraren sarea zabaltzea, pertsona adituekin kontraste zorrotza egin ahal izateko.
- Ikaskuntza-espazio berri bat irabaztea.


## Pertsona Mentoreak lortzen dituen onurak

- Enpresa-sare gaztea finkatzen laguntzea.
- Gizartearen aldeko ekarpen bat egitea, ezagutza eta esperientzia eskaintzaren bidez.
- Ikaskuntza-espazio berri bat irabaztea.

**23**  
PRESTATUTAKO  
PERTSONA  
MENTOREAK

**28**  
SINATUTAKO  
HARREMANAK

**66**  
PRESTATUTAKO  
PERTSONA  
EKINTZAILEAK



**“Gustatzen zait  
neuretzat  
lan egitea”**

LAURA CEPEDA

**GOZOGINTZA  
INDUSTRIALEKO  
LANTEGIA**

**MENTORING P.  
BIZKAIA**



**gaztenpresa**  
fundazioa

# KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEA

**Fundazioaren helburuetako bat ekintzailearen espiritua sustatzea da enplegu sortzerako eta sendotzerako.**

## **1 UNIBERTSITATE ETA LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEAK**

Sen ekintzailea eta proiektu berritzaileak euren ikasleen artean sustatu nahi dituzten Unibertsitate eta Lanbide Heziketako ikastetxeentzako laguntza, sostengu ekonomiko eta jarduera espezifikoen bitartez.

## **2 AUTOENPLEGUA**

Autoenplegua lan-alternatiba gisa ezagutzen ez duten langabeei.

MONDRAGÓN  
UNIBERTSITATEA

**35**  
PROIEKTU

UPV/EHUREN  
EKINTZAILTZAKO MBAE3  
MASTERRA

**5** PROIEKTU

TECNUN 116

**40**

ekitalditan

PARTE HARTU DUGU



# MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Enpresa-idea Berrien kategoriako proiektu irabazleak:

## 1. SARIA: GEOSAFE

Produktu sorta bat da, helburutzat hartzen duena azpiegitura zibilen osasuna monitorizatzea.

## 2. SARIA: JELLYFIZZ

Snack dibertigarri eta berritzaileak eskaintzen dituzte, hainbat zaporetako gelatina formarekin eta CO2arekin infusionatuta.

## 3. SARIA: BACKSENSE

Pazientearen bizkarraren posizioa monitorizatzen du denbora errealean. Informazio hori datu-base batean gordetzen da, aditu batek geroago aztertu dezan.

# TECNUN U. DE NAVARRA

Kirolaren alorreko Asmamen eta Diseinuaren XIII. lehiaketaren babesa. Tecnun-Gaztenpresa sariaren irabazleak Lizarrako (Nafarroa) Nuestra Señora del Puy Ikastetxeko Paula Basterra, Leyre Cerrillo eta

Juncal Izaguirre izan ziren, produktuak birziklatzea eta birrintzea ahalbidetzen duen Recycliin Bin paperontziagatik

# UPV/EHU MBAE3

UPV/EHUren Ekintzaitzako eta Enpresen Zuzendaritzako MBAe3 Masterraren II. Promozioa, Laboral Kutxa finantza-erakundearen Gaztenpresa Fundazioak saritutako hiru proiektuekin.

## 1. SARIA: ASPARIA GLYCOMICS

Juan Echevarriarena; jadanik dago martxan Donostiako CIC Biomagune – biomaterialetarako ikerketa-zentroan.

## 2. SARIA: ON-FASHION

Leyre Ballesterosena; modaren sektoreko business to business plataforma bat da.

## 3. SARIA: AMAIA MUNUERA

MBAe3 Masterretik teknikoki onena izan zen business plana defendatu zuen, eta sariaren akzesita lortu zuen.





UPV/EHU MBAE3

# KOMUNIKAZIOA

Gaztenpresan online kanal batzuk ditugu, helburu hirukoitzarekin: informazio baliagarria eskaintzea ekintzaile izan nahi duten pertsoneri, bide hori jadanik hartuta dutenak gehiago bistaratzea, eta plataforma berriak irekitzea zalantzak dituzten pertsona guztiak atenditzeko.

## 1 BLOGA

Gehiago bistaratu dira ekintzaileak eta haien enpresa-proiektuak.

**Sortutako enpresak ezagutu:**  
[www.gaztenpresa.org/es/empresas-creadas/](http://www.gaztenpresa.org/es/empresas-creadas/)

## 2 SARE SOZIALAK



**6.198**

**JARRAITZAILE**



3

### KAPAINAK HEDABIDEETAN, EKITALDIAK


Kanpainak egiten ditugu hedabideetan eta ekitaldietan parte hartzen dugu, Fundazioaren lana pertsona ekintzaileei ezagutzera emateko, haien adina zeinahi delarik ere.

**Hautan parte hartu dugu, beste batzuen artean:**

**START INNOVA SUMMIT DONOSTIAN**

**B-VENTURE BILBON**





**“Asko gustatzen  
zait nire bezeroen  
gogobetetasuna”**

AMAIA CAMPOS

XARMA  
EDERTASUN ZENTROA

E. SORTZEA  
ARABA



**“Amets baten  
alde borrokatuz,  
sektorean 30  
urte eman  
ondoren”**

JOSU LÓPEZ  
ANDER SORIANO

**INPRIMATEGI DIGITAL**  
LA TRAMA DIGITAL  
PRINT

**E. SORTZEA  
BIZKAIA**



**gaztenpresa**  
fundazioa

---

# EGOERAREN BALANTZEA 2017

---


<b>AKTIBOA</b>	<b>2017</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>2017</b>
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>15.452</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>174.298</b>
		<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>564.326</b>
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>890.622</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>167.450</b>
<b>TOTAL ACTIVO</b>	<b>906.074</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>906.074</b>

\* Eurotan adierazita.

# Galera eta irabazien kontua 2017

(Eurotan adierazita)

<b>A) EKITALDIAREN SOBERAKINA</b>	<b>2017</b>
<b>OPERAZIO JARRAITUAK</b>	
1. Jarduera propioaren sarrerak	860.980
a) Promozio, babesle eta laguntzaileen bidez eskuratutako sarrerak	580.980
b) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	280.000
2. Salmentaren eta merkataritza-jardueraren beste sarrera batzuk	-
2. Gastuak diru-laguntzengatik eta beste batzuen-gatik	(455.586)
a) Diruzko laguntzak	(5.707)
a) Diruz besteko laguntzak	(449.879)
3. Jardueraren beste sarrera batzuk	857
4. Jardueraren beste gastu batzuk	(401.203)
5. Ibilgetuaren amortizazioa	(3.778)
6. Hornigaien gehiegizko kantitatea	-
<b>JARDUERAREN SOBERAKINA</b>	<b>1.270</b>
7. Finantza-sarrerak	-
8. Finantza-gastuak	(72)
9. Truke-diferentziak	-
<b>FINANTZA-OPERAZIOEN SOBERAKINA</b>	<b>(72)</b>
SOBERAKINA, ZERGEN AURRETIK	1.198
11. Mozkinen gaineko zerga	-
<b>ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAREN SOBERAKINEAN AITORTUA</b>	<b>1.198</b>
ERRAKUNTZEK ERAGINDAKO DOIKUNTZAK	-
<b>OSOKO EMAITZA, ONDARE GARBIAK EKITALDIAN IZANDAKO ALDAKETA</b>	<b>1.198</b>



## “Proiektu hau hasteko une egokia zen”

JUAN IGNACIO URGUZA

JOHNS SCHOOL  
INGELES AKADEMIA

C. EMPRESARIAL  
ARABA



# Nondik hasi

Ausartu zaitez zeure negozioa abian jartzen.

## **Cuéntanos tu idea:**

[www.gaztenpresa.org/eu/konta-iezaguzu-zure-negozio-ideia/](http://www.gaztenpresa.org/eu/konta-iezaguzu-zure-negozio-ideia/)

## **GAZTENPRESA FUNDAZIOA**

[www.gaztenpresa.org/eu](http://www.gaztenpresa.org/eu)



900 101 143



[info@gaztenpresa.org](mailto:info@gaztenpresa.org)

## **LABORAL KUTXAREN BULEGO SAREA**

[www.laboralkutxa.com/eu/bulegoen-bilatzailea](http://www.laboralkutxa.com/eu/bulegoen-bilatzailea)



901 333 444



[kontaktatu@laboralkutxa.com](mailto:kontaktatu@laboralkutxa.com)



**gaztenpresa**  
fundazioa



[www.gaztenpresa.org](http://www.gaztenpresa.org)

